

Gobernu taldeak Laudioko Kulturaren Plan Estrategikoa diseinatzeko prozedura salatu du EH Bilduk

Nagore Gomara: “Udalaren gardentasun eza agerian geratu da Kultura planaren diseinuan, eta prozedurari buruzko nondik-norakoak argitzea eskatzen dugu”.

Laudio, 2021.04.27. EH Bilduk gogor kritikatu du EAJ-PSE gobernuak, orain, ustekabea, eta aurreko urteetan herriko eragileekin batera egindako lana aintzat hartu gabe, Kultura plana diseinatzeko topaketa baterako deia luzatu izana. Era berean, koalizioak adierazi du 2020. urteko aurrekontuetan, 35.000 euroko partida bat onartu zela ekimen hori aurrera eramateko, eta gobernu taldeak berak emandako hitza ez betetzeagatik, partida hori exekutatu gabe geratu zela 2020an, eta 2021eko aurrekontuetatik desagertu egin dela.

Aldi berean, koalizioak gogoratu dio Udal gobernuari lehenengo prozesu parte hartzailea eta lehenengo topaketak 2016. urtean burutu egin zirela, EH Bildu Laudio kudeaketan zegoenean, eta ez orain, gobernu taldeak adierazi duen bezala. *“Ahaztu al zaio EAJ-PSE gobernuari 2016. urtean, SOS Lamuza Parkea plataformarekin elkarlanean abiatutako Laudioko Kultur Ekosistemaren Mapaketa?”* galdetu du Nagore Gomarak. *“Horrela bada, udalaren web gunean, eskuragarri dago mapaketaren txostena. Gure ustez, egokiagoa litzateke hasitako aurre lanketa hori oinarritzat hartuta gaur eguneko lanari jarraipena ematea, eta ez behin eta berriro, gauza bera errepikatzea eta hutsetik hastea”*, gehitu du zinegotziak. Bestalde, beste behin ere, alderdiak leporatu dio EAJ-PSE gobernuari Kultura Kontseilua deitu ez izana honelako prozesuetarako, eta adierazi du 2018. urteko urrian egindako Kultur Kontseiluaren lehenengo bilera batean jaso zirela ia kulturgintzaren eremuan, laudioar eragile kulturalen eta pertsona partikularren behar nagusiak.

Bukatzeko, EH Bilduk salatu du Kultura arloan ez dagoela gai honi dagokion espedienterik, eta pasa den apirilaren 15ean, Kulturaren Plan Estrategikoa diseinatzeko bilera ireki bat ospatu zela Kasinoan, Kualitate Lantaldea bertan zelarik dinamizazio lanak burutzen, eta maiatzaren 6an, hurrengo hitzordua izango dela. *“Ez gaude kultura plana osatzearen kontra baina diru publikoa den heinean, uste dugu laudioarrekiko errespetuz eta batez ere, aurreko prozesuetan parte hartu izan dutenen begirunez egin behar dela; lan horiek administrazioak bete beharreko urratsak eginez gara daitezen eskatzen dugu, eta EAJ-PSE gobernu taldeak horrenbeste saltzen duen gardentasunaz eta dagokion espedienteaz”* aldarrikatuz bukatu du hautetsiak.

EH Bildu denuncia el procedimiento seguido por el equipo de gobierno para diseñar el Plan Estratégico de Cultura de Laudio

Nagore Gomara: "La falta de transparencia del Ayuntamiento se ha puesto de manifiesto en el diseño del plan de Cultura, y pedimos que se clarifiquen los pormenores del procedimiento".

Laudio, 27.04.2021. EH Bildu ha criticado la convocatoria realizada por el gobierno PNV-PSE para diseñar el Plan de Cultura de manera "inesperada" y sin tener en cuenta el trabajo realizado en años anteriores con el movimiento asociativo de la localidad. Asimismo, la coalición señala que en los presupuestos del año 2020 se aprobó una partida de 35.000 euros para llevar a cabo esta iniciativa, y que, por incumplimiento de la palabra dada por el propio equipo de gobierno, dicha partida quedó sin ejecutar en 2020, y en los presupuestos de 2021 no ha sido contemplada.

Asimismo, la coalición ha recordado al gobierno municipal que el primer proceso participativo y los primeros encuentros se llevaron a cabo ya en 2016, cuando EH Bildu estaba en la gestión municipal, y no ahora, como ha señalado el propio equipo. *"¿Se ha olvidado el gobierno PNV-PSE del Mapeo del Ecosistema Cultural de Llodio, realizado en 2016, en colaboración con la plataforma SOS Lamuza Parkea?"*, ha preguntado Nagore Gomara. *"Si es así, en la web municipal, está disponible el informe del mapeo. Creemos que sería más adecuado dar continuidad al trabajo actual teniendo en cuenta la base del trabajo previo iniciado años atrás, y no una y otra vez, repetir lo mismo y empezar de cero"*, añade la concejala. Por otra parte, una vez más, EH Bildu acusa al gobierno PNV-PSE de no haber convocado el Consejo de Cultura para este tipo de procesos, y señala que, en una primera reunión del Consejo de Cultura celebrada en octubre del año 2018, se recogieron ya prácticamente las principales necesidades relativas al ámbito cultural tanto de los agentes culturales laudioarras como de las personas particulares.

Por último, EH Bildu ha denunciado que en el área de Cultura no existe ningún expediente relativo a este tema, y que el pasado 15 de abril se celebró en el Casino un primer encuentro abierto para diseñar el Plan Estratégico de Cultura, dinamizado por la empresa Kualitate Lantaldea, y que el próximo 6 de mayo será la siguiente cita. *"No estamos en contra de la elaboración del plan de cultura, pero en la medida en que se trata de dinero público, creemos que hay que hacerlo con respeto a los y las laudioarras y, sobre todo, con respeto a quienes han participado en los procesos anteriores; pedimos que estos trabajos se desarrollen cumpliendo los pasos administrativos correspondientes, y practicando la transparencia de la que tanto farda el equipo de gobierno"* ha manifestado la concejala.

